



Foru Aginduaren proposamena, Gipuzkoako Lurralde Historikoan 2019/2020 kanpainarako ehiza aldiak eta baldintza orokorrak finkatzekoa.

2011ko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak, Ehizarenak, bere 31. artikuluan ezarritakoa betetz, beharrezkoa da zehaztea 2019/2020 kanpainan indarrean egongo diren murrizketa eta ehizatze aldiak.

Debekualdietan Foru Agindu honen helburua ehiza arautzea da, baliabide naturala dela eta horren iraupena bermatu behar dela onartuta eta honako lege-arauak kontuan hartuta: 2/2011 Legea, martxoaren 17koa, Ehizarena; martxoaren 25eko 506/1971 Dekretua, 1970eko apirilaren 4ko Ehiza Legea gauzatzeko Erregelamendua onartzen duena; Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina, 2014ko apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutakoa; 1995eko abenduaren 7ko 1997/1995 Errege Dekretua, Basa Landare eta Animalien habitat naturalak kontserbatuz biodibertsitatea bermatzen laguntzeko arauak ezartzen dituen; 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legea, Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzkoa; 79/409/EEE, 92/43/EEE eta 94/24/EEE Direktibak; eta 1979ko irailaren 19ko Bernako Ituna.

Auzitegi Gorenaren 2018ko abenduaren 10eko epaiak baliogabetu egin zuen ekainaren 18ko 1121/2014 Agindua, Madrilgo Erkidegoan ehizarako mugak eta baliozko garaiak ezartzen zituen 2014-2015 denboraldian.

Epaiak baiesten duen errekurtsua, beste kasazio-arrazoi batzuen artean, zio honetan oinarritzen da 88.1 d) artikularen babespean: araubide juridikoaren eta jurisprudentziaren arauak urratzea, ehiza-baliabideen jasangarritasun printzipioari eta arrazoizko erabilerari dagokienez. Kontuan hartzen dira, hain zuzen, 2009/147/CE Direktibaren 7.4 artikulua eta Ondare Naturalari eta Biodibertsitateari buruzko 42/2007 Legearen 62.2 artikulua, non espezie batzuen ehiza aipatzen den; izan ere, nahiz eta ehizatu daitezkeen espezieak izan, babestu egin behar dira kontserbazio egoera onean ez dauden edo jakiterik ez dagoenean zein den haien kontserbazio egoera, eta betiere ugaltze eta ematze garaitik kanpo.

Epaiak errekurtsua baiesten du ez dagoelako izaera biologikoko alde zuzeneko txosten teknikorik, beharrezkotzat jotzen baitira

Propuesta de Orden Foral, por la que se fijan los periodos hábiles y condiciones generales de caza en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para la campaña 2019/2020.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 31 de la Ley 2/2011, de 17 de marzo de 2011, de Caza, se hace necesario señalar las limitaciones y épocas hábiles de caza que a estos efectos deberán regir durante la campaña 2019/2020.

La presente Orden Foral de Vedas tiene como objetivo regular la caza en su condición de recurso natural cuya persistencia debe garantizarse, teniendo en cuenta para ello lo previsto en la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza, en el Decreto 506/1971, de 25 marzo, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley de Caza de 4 de abril de 1970, en el texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/2014, de 15 de abril, el Real Decreto 1997/1995, de 7 de diciembre, por el que se establecen medidas para contribuir a garantizar la biodiversidad mediante la conservación de los hábitats naturales y de la fauna y flora silvestres, la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, las Directivas 79/409/CEE, 92/43/CEE y 94/24/CEE y el Convenio de Berna de 19 de septiembre de 1979.

La sentencia del Tribunal Supremo 1739/2018, de 10 de Diciembre de 2018, ha anulado la Orden 1121/2014, de 18 de junio, por la que se fijaban los límites y épocas hábiles de caza en la Comunidad de Madrid, en la temporada 2014-2015.

El recurso, que la sentencia estima, se impuso invocando, entre otros motivos de casación, “al amparo del artículo 88.1 d) LJCA, por infracción de las normas del ordenamiento jurídico y de la jurisprudencia en relación al principio de sostenibilidad y utilización razonable de los recursos cinegéticos. Se invocan el artículo 7.4 de la Directiva 2009/147/CE y el artículo 62.2 de la Ley 42/2007, de Patrimonio natural y biodiversidad en relación a la caza de especies que, aun siendo cinegéticas, no se encuentran en estado de conservación favorable o no se conozca con certeza su estado de conservación y siempre fuera de su época de reproducción y cría”.

La sentencia estima el recurso “por falta de informes técnicos previos necesarios de carácter biológico que, en una materia tan



ingurumena babesteko hain nabarmenak diren gai hauen inguruan: ehiza espezieak babestea eta arrazoizko erabilera bermatzea.

Foru agindu hau prestatzeko, lehendabizi Gipuzkoako Lurralde Historikoko ehiza espezien kontserbazio egoera zehaztu da, gaur arte eskura dagoen ezagutza onenean oinarrituta. Horretarako, alde batetik, Gipuzkoako ehiza-hegaztien kontserbazio egoerari buruzko irizpen bat egitea enkargatu zaio Aranzadi Zientzia Elkarteari, eta, bestaldekik, ehizatu daitezkeen ugaztunen ebaluazioa egiteko, Departamentuan eskuragarri dagoen informazioa erabili da, zehazki, 15 urte baino gehiagoko datuak hartu dira.

Bestalde, Europar Batzordeak, 2018ko maiatzaren 23an, jendaurrean aurkeztu zuen Funtsezko Kontzeptuen Dokumentua (KCD), Europar Batasuneko ehiza-hegaztien ugaltze eta eztei aurreko migrazio garaiei buruzkoa; zehazki, Hegazti eta Habitaten Direktibaren gaineko aditu taldearen bileran (NADEG) aurkeztu zuen. Dokumentuak hegaztien fenologiari buruzko eguneratutako informazioa jasotzen du, 10 eguneko tarteetara egokituta eta herrialdeka sailkatuta; horrela, bada, ehiza-aldiak ezar daitezke ugaltze eta eztei aurreko garaietatik kanpo, basa hegaztien kontserbazioari buruzko 2009/146/EB Direktibaren 7. artikuluan ezarritakoa betez.

Trantsizio Ekologikorako Ministerioak datu zientifikoen analisisen emaitza eta dokumentuari buruzko interpretazioa jakinarazi dizkio Europar Batzordeari.

Beraz, une honetan, kontrastatutako erreferentzia bat dago Gipuzkoan baimendutako ehiza-aldiak ezartzeko, alde batera utzita ugaltze eta eztei aurrekoaldiak, eta, horrela, 2009/147/EB Direktibak ezarritakoa betetzeko; hori guztia kontuan hartu da Foru Agindua prestatzeko unean.

Foru Agindu hau egiteko orduan, era berean, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak, ezartzen duena kontuan hartua izan da.

Hortaz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Ehiza Kontseiluari entzunik, Foru Agindua onartzea proposatzen da honako atalekin:

sensible para el medio ambiente como la preservación de las especies cinegéticas y su utilización racional, resulta preceptivo”.

Para la elaboración la presente Orden Foral se ha determinado el estado de conservación de las especies de cinegéticas en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, en base al mayor y mejor conocimiento disponible hasta la fecha. Para ello, por una parte, se ha encargado a la Sociedad de Ciencias Aranzadi un dictamen del estado de conservación de las aves cinegéticas de Gipuzkoa, y, por otra, para la evaluación de los mamíferos cazables, se ha contado con la información disponible en el Departamento, con una serie de datos de más de 15 años.

Por otra parte, la Comisión Europea, con fecha de 23 de mayo de 2018, presentó públicamente el proceso de actualización del Documento de Conceptos Claves (KCD), sobre períodos de reproducción y migración prenupcial de las aves consideradas cinegéticas en la Unión Europea, durante la reunión del Grupo de Expertos sobre la Directiva Aves y Hábitats (NADEG). Este documento recoge la información más actualizada sobre la fenología de las aves, ajustada a intervalos de 10 días y por países, de forma que se puedan establecer los períodos de caza fuera de los períodos de reproducción y migración prenupcial, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 7 de la Directiva 2009/146/CE de conservación de las aves silvestres.

El Ministerio de Transición Ecológica ha transmitido a la Comisión Europea el resultado de los análisis de los datos científicos y su interpretación sobre el documento.

En este momento se cuenta, por tanto, con una referencia contrastada para establecer los períodos de caza autorizados en Gipuzkoa, evitando los períodos de reproducción y de migración prenupcial, cumpliendo, de esta forma, la Directiva 2009/147/CE, lo que se ha tenido en cuenta en la elaboración de la Orden Foral.

Para la elaboración de la presente Orden Foral igualmente se ha tenido en cuenta lo establecido por la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres.

En consecuencia, oído el Consejo de Caza del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se propone la aprobación de la Orden Foral con el siguiente articulado:



1. artikulua. Ehizarako egunak eta orduak.

1. Ehiza egunak. Ehiza aldiaren barruan asteko egun guztietan ehizatu ahal izango da, espezie batzuen inguruan ezartzen diren salbuespenekin.

2. Ehiza orduak. Baimendutako ehiza aldian, ehizarako orduak ondorengoak izango dira:

- Urriaren 26a arte: eguzkia atera baino ordubete lehenagotik eguzkia sartu eta ordubete beranduago arte.
- Urriaren 27tik azaroaren 30a arte: goizeko 07:30tatik arratsaldeko 17:30ak arte.
- Abenduaren 1etik ehizatzeko aldiaren amaierara arte: goizeko 08:00tatik arratsaldeko 17:30ak arte.
- 2013ko uztailaren 16ko Foru Aginduaren bidez sortutako erregistroan sartzen diren ehiza tradizionalako postuetan, 2.2.d) atalean ezarritako zozketapeko garaian: urriaren 26ra arte, eguzkia atera baino ordubete lehenagotik eguzkia sartu eta ordubete beranduago arte; eta urriaren 28tik aurrera, berriz, eguzkia atera baino ordubete lehenagotik arratsaldeko 17:30ak arte.

2. artikulua. Ehiza aldiak eta berezko araudia.

1. Erdi debekuko aldia. Galeperra (*Coturnix coturnix*), Usapala (*Streptopelia turtur*) eta Usoak (*Columba sp.*) irailaren 1etik urriaren 11ra bitartean, biak barne. Ehizaldi horretan zozketatzen diren ohiko pasabideetan 2013ko uztailaren 16ko Foru Agindua aplikatuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ohiko pasabideetan hegazti migratzaileen ehiza arautzen duena.

2. Ehiza xehea, oro har. Zehaztuko diren salbuespenak salbu, ehiza aldia urriaren 12tik otsailaren 2 bitartekoa izango da, biak barne, lurralde historiko honetan ehiza daitezkeen espezieetarako. Aipatu Gipuzkoan espezie ehizagarriak jarraian adierazitakoak dira, Ehiza arautzen duen 2/2011 Legearen 11. artikulua eta Eusko Jaurlaritzako 2012ko urriaren 16ko 216/2012 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan ehiza daitezkeen espezieen zerrenda ezartzekoak, ezartzen dutenaren arabera:

Ugaztunak
Azeri arrunta (*Vulpes vulpes*), Erbia (*Lepus europaeus*) eta Mendi untxia (*Oryctolagus cuniculus*).

Artículo 1. Días y horarios hábiles.

1. Días hábiles. Se podrá cazar todos los días de la semana dentro del respectivo período hábil, salvo las excepciones que se especifiquen en relación con determinadas especies.

2. Horarios hábiles. Durante los períodos autorizados para cazar los horarios hábiles serán los siguientes:

- Hasta el 26 de octubre: desde una hora antes de la salida del sol hasta una hora después de la puesta.
- Desde el 27 de octubre hasta el 30 de noviembre: desde las 7:30 hasta las 17:30 h.
- Desde el 1 de diciembre hasta el final del período: desde las 8:00 hasta las 17:30 h.
- En los puestos de caza tradicional, incluidos en el registro creado por la Orden Foral de 16 julio de 2013, durante el período de sorteo establecido en el apartado 2.2.d): hasta el 26 de octubre, desde una hora antes de la salida del sol hasta una hora después de la puesta; y desde el 28 de octubre, desde una hora antes de la salida del sol hasta las 17:30 h.

Artículo 2. Períodos hábiles y regulación específica.

1. Media veda. Codorniz (*Coturnix coturnix*), Tórtola (*Streptopelia turtur*) y Palomas (*Columba sp.*): Desde el 1 de septiembre hasta el 11 de octubre, ambos inclusive. En las líneas de paso tradicional que se sorteen en este período se aplicará la Orden Foral de 16 de julio de 2013, por la que se regula la caza de aves migratorias en pasos tradicionales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

2. Caza menor en general. Salvo las excepciones que se especifiquen, el período hábil será el comprendido entre el 12 de octubre y el 2 de febrero, ambos inclusive, para las especies cazables en este Territorio Histórico, que, conforme al artículo 11 de la Ley 2/2011, de Caza y al Decreto del Gobierno Vasco 216/2012, de 16 de octubre, por el que se establece el listado de especies cinegéticas de la comunidad Autónoma del País Vasco, son las siguientes:

Mamíferos
Zorro (*Vulpes vulpes*), Liebre (*Lepus europaeus*) y Conejo (*Oryctolagus cuniculus*)



Hegazti sedentarioak

per gorria (*Alectoris rufa*), Faisai arrunta (*Phasianus colchicus*), Mika (*Pica pica*), Belabeltza (*Corvus corone*), Haitz usoa (*Columba livia*) eta Araba zozo pikarta (*Sturnus vulgaris*).

Hegazti migratzaileak

Galeperra (*Coturnix coturnix*), Istingor txikia (*Lymnocyptes minimus*), Istingor arrunta (*Gallinago gallinago*), Oilagorra (*Scolopax rusticola*), Txoloma (*Columba oenas*) (1), Pagausoa (*Columba palumbus*), Durdula (*Turdus pilaris*), Birigarro arrunta (*Turdus philomelos*), Birigarro txikia (*Turdus iliacus*), Garraztarroa (*Turdus viscivorus*).

(1) Espezie honen ehiza ohiko pasabideetako zozketa garaian bakarrik baimenduko da: irailaren 15etik azaroaren 15era.

Ur hegaztiak

Antzara hankagorritza (*Anser anser*) (1), Ipar ahatea (*Anas strepera*) (1), Zertzeta arrunta (*Anas crecca*) (1), Basahatea (*Anas platyrhynchos*), Ahate mokozabala (*Anas clypeata*) (1), Murgilari arrunta (*Aythya ferina*) (1), Murgilari mottoduna (*Aythya fuligula*) (1) eta Kopetazuri arrunta (*Fulica atra*)(1).

(1) Espezie horien ehiza migrazioa garaian bakarrik baimenduko da: irailaren 15etik azaroaren 15era.

a) Erbia (*Lepus europaeus*) eta untxia (*Oryctolagus cuniculus*). Populazioen egoera kontuan hartuta, zenbait eremutan mugatutako ehizaldiak baimenduko dira. Ehizaldi horiek egiteko eskaerak, Basa Animalien eta Landareen Zerbitzura zuzenduak, Gipuzkoako Ehiza Federazioan aurkeztuko dira 2019ko irailaren 15a baino lehen. Eskaera banakakoa edo taldekoa izan daiteke, eta ondorengo datu hauek erantsi beharko dira: izena, NA (taldeak diren kasuan, ehiztari bakoitzarena), sexua eta eskatutako ehiza lekuak eta egunak.

Gipuzkoan mendi-untxia ehizatzekeo baimen berezi bat beharko da. Espezie hori ehizatzekeo eskaerak, Basa Animalien eta Landareen Zerbitzura zuzenduak, Gipuzkoako Ehiza Federazioan aurkeztuko dira, 2019ko irailaren 15a baino lehen. Eskaerari ondorengo datu hauek erantsi beharko zaizkio: izena, NA, sexua eta eskatutako ehiza lekua eta egunak.

Aves sedentarias

Perdiz roja (*Alectoris rufa*), Faisán (*Phasianus colchicus*), Urraca (*Pica pica*), Corneja negra (*Corvus corone*), Paloma bravía (*Columba livia*) y Estornino pinto (*Sturnus vulgaris*).

Aves migratorias

Codorniz común (*Coturnix coturnix*), Agachadiza chica (*Lymnocyptes minimus*), Agachadiza común (*Gallinago gallinago*), Becada (*Scolopax rusticola*), Paloma zurita (*Columba oenas*) (1), Paloma torcaz (*Columba palumbus*), Zorzal real (*Turdus pilaris*), Zorzal común (*Turdus philomelos*), Zorzal alirrojo (*Turdus iliacus*) y Zorzal charlo (*Turdus viscivorus*),

(1) La caza de esta especie solo se autoriza en el período de paso establecido para el sorteo en las líneas de paso tradicional, desde el 15 de septiembre al 15 de noviembre

Aves acuáticas

Ansar común (*Anser anser*) (1), Ánade friso (*Anas strepera*), Cerceta común (*Anas crecca*) (1), Ánade azulón (*Anas platyrhynchos*), Cuchara europeo (*Anas clypeata*) (1), Porrón europeo (*Aythya ferina*) (1), Porrón moñudo (*Aythya fuligula*) (1) y Focha común (*Fulica atra*)(1).

(1) La caza de estas especies solo se autorizará en el período migratorio, desde el 15 de septiembre al 15 de noviembre

a) Liebre (*Lepus europaeus*) y conejo (*Oryctolagus cuniculus*). Teniendo en cuenta el estado de las poblaciones, se podrán autorizarán cacerías limitadas en determinadas zonas. Las solicitudes para la realización de dichas cacerías, dirigidas al Servicio de Fauna y Flora Silvestre, se presentarán en la Federación Guipuzcoana de Caza antes del 15 de septiembre de 2019. Dicha solicitud podrá ser individual o colectiva e incluirá los siguientes datos: nombre, DNI (en caso de grupos los de cada cazador o cazadora), sexo y el lugar y las fechas de caza solicitadas.

Para la caza del conejo en Gipuzkoa será necesario contar, asimismo, con un permiso especial. Las solicitudes para la caza de esta especie, dirigidas al Servicio de Fauna y Flora Silvestre, se presentarán en la Federación Guipuzcoana de Caza antes del 15 de septiembre de 2019. Dicha solicitud incluirá los siguientes datos: nombre, DNI, sexo, y el lugar y las fechas de caza solicitadas.



b) Eper gorria (*Alectoris rufa*) eta faisai arrunta (*Phasianus colchicus*). Urriaren 12tik otsailaren 2 bitartean, biak barne, ehiza egunak ostegun, larunbat, igande eta jaiegunetara mugatzen direlarik.

Kontrolatutako ehiza lekuetan faisaiak harrapatzeko baimena emango da; betiere, dagozkion ehiza planetan xedatutakoaren arabera; beraz, horretarako Ehiza Federazioaren eta eremu bakoitza kudeatzen duten elkarten baimena eskuratu beharko da.

c) Oilagorra (*Scolopax rusticola*). Urriaren 12tik otsailaren 16ra, biak barne. Espezie hau ehiza daiteke, baina "saltoan" bakarrik. Debekatuta dago, beraz, "zelatan" ehizatzea. Ehiztari eta eguneko, gehienez hiru oilagor harrapatu daitezke, eta espeziea egun guztietan ehizatu ahal izango da, jaiegunak ez diren ostiraletan izan ezik

Gipuzkoan oilagorraren ehizaren kudeaketa egokirako behar den informazioa lortzearen, beharrezkoa da ehizatzen denaren parte bat alboan eramatea, hartara espezie horren ehiza aprobetxamendu komuneko lur zinegetikoetan egiteko. Parte hori Gipuzkoako Ehiza Federazioan jaso beharko da, eta, bete eta gero, Federazioa bertara eraman. Ehiztaria behartuta dago datuok ehizatzen duen egunean bertan betetzera. Orobat, harrapaketak momentuan bertan markatu beharko dira, eta oilagorra prezintatu egin beharko da, harrapaketa partearekin batera banatzen diren prezintoeekin.

Berezko araudia duten ehiza-erregimen bereziko lurretan, oilagorra gunehorien araudi bereziaren arabera ehizatuko da.

d) Hegazti migratzaileak ohiko pasabideetan. Irailaren 15etik otsailaren 2 bitartean, biak barne.

Ohiko pasabideetako ehiza foru agindu honek xedatutakoaren arabera arautuko da: 2013ko uztailaren 16ko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ohiko pasabideetan hegazti migratzaileen ehiza arautzen duena. Ohiko pasabideetat hartuko dira foru agindu horrek arautzen duen Erregistroan jasotakoak. Eremu horietan Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuak

b) Perdiz (*Alectoris rufa*) y faisán (*Phasianus colchicus*). Desde el 12 de octubre hasta el 2 de febrero, ambos inclusive, estando su caza limitada a jueves, sábados, domingos y festivos.

En las zonas de caza controlada la caza del faisán se autorizará de acuerdo a lo dispuesto en los planes cinegéticos correspondientes, por lo que será necesario el permiso de la Federación Guipuzcoana de Caza y de las sociedades gestoras de cada zona.

c) Becada (*Scolopax rusticola*). Desde el 12 de octubre hasta el 16 de febrero, ambos inclusive. Solamente se permite la caza de esta especie "al salto", quedando prohibida su caza a la espera. El cupo máximo por cazador o cazadora y día de caza es de tres becadas y la especie se podrá cazar todos los días menos los viernes no festivos.

Con el objeto de obtener la información necesaria para una adecuada gestión de la caza de la becada en Gipuzkoa, se establece la obligación de portar un parte de captura, para poder practicar la caza de dicha especie en terrenos cinegéticos de aprovechamiento común de Gipuzkoa. Dicho parte se deberá recoger en la Federación de Caza de Gipuzkoa y se deberá entregar, una vez cumplimentado, en la misma Federación. El cazador o cazadora estará obligado a rellenar los datos incluidos en el parte de captura la misma jornada de caza. Asimismo, las capturas se deberán marcar al momento en el parte de captura y se deberá precintar la becada cazada con los precintos que, a tal efecto, acompañan al parte de capturas.

En terrenos de régimen cinegético especial, la caza de la becada se desarrollará de acuerdo con lo establecido en su normativa específica.

d) Aves migratorias en pasos tradicionales. Desde el 15 de septiembre hasta el 2 de febrero, ambos inclusive.

La caza en zonas tradicionales de paso se regirá por lo dispuesto en la Orden Foral de 16 de julio de 2013, por la que se regula la caza de aves migratorias en pasos tradicionales en el Territorio Histórico de Gipuzkoa. Se considerarán líneas de paso tradicional las incluidas en el Registro regulado mediante dicha orden foral. En dichas zonas se aplicarán las condiciones acordadas por el Departamento de



eta Gipuzkoako Ehiza Federazioak ohiko pasabideak kudeatzeko onartutako baldintzak beteko dira. Zozketak irailaren 15ean hasi, eta azaroaren 17ra bitartean egingo dira. Pasabideak hobeto kudeatzearen zozketak luzatu nahi dituzten elkarteek abenduaren 31ra bitartean luzatu ahal izango dituzte, aurrez Gipuzkoako Ehiza Federazioaren bidez, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuari baimena eskatuz.

Anguta ohiko pasabidean 5 postu Leintz-Gatzagako udalerrian daude, eta lerroak Arabatik jarraitzen du, guztira 21 postu osatu arte. Lerro osoaren kudeaketa egokia bermatzeko, Arabako postuen iparraldean dagoen lurralde gipuzkoarrean 2013ko uztailaren 16ko Foru Agindua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko ohiko pasabideetan hegazti migratzaileen ehiza arautzen duena. Beraz, zozketa garaian, lerro aurretik 500 m-tan ezingo da ehizan aritu, ezta eskopetarekin ibili ere.

Ohiko pasabide bezala izendatu ez diren eta Federazioak kudeatzen ez dituen gainontzeko lerroetan ehiza arloan indarrean dagoen araudi orokorra aplikatuko da.

e) Uretako hegaztiak. Basahatea (*Anas platyrhynchos*) izan ezik, ur hegaztien ehiza migrazio garaian baimenduko da soilik: irailaren 15etik azaroaren 15a bitartean.

f) Azeria (*Vulpes vulpes*). Urriaren 12tik otsailaren 29ra bitartean, biak barne.

Azeriaren ehiza araubide arrunteko lekuetan uxaldietan baimenduko da soilik larunbat, igande eta jaiegunetan, eta Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuaren baimena beharko da. Espezie hori ehizatze baimena duen ehiztariak baimenean ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Uxaldietan, gutxienez bost ehiztarik parte hartu beharko dute, eta ezingo da uxaldia egin ehiztari kopuru txikiagoarekin.

Ehizaldi horiek egiteko eskaerak Gipuzkoako Ehiza Federazioan aurkeztuko dira, Basa Animalien eta Landareen Zerbitzura zuzenduta, 2019ko irailaren 15a baino lehen. Eskaeran adierazi behar da ehizan arituko den taldea nortzuk osatzen duten,

Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial y la Federación Guipuzcoana de Caza, para la gestión de las líneas de paso tradicional. El período de sorteo será el comprendido entre el 15 de septiembre y el 17 de noviembre. Las sociedades que, para una mejor gestión de las líneas, quieran prolongar los sorteos podrán hacerlo hasta el 31 de diciembre, previa solicitud al Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial a través de la Federación Guipuzcoana de Caza.

La línea de paso tradicional de Anguta cuenta con 5 puestos en el término municipal de Leintz-Gatzaga y continúa por el territorio de Alava, completando un total de 21 puestos. Con objeto de garantizar una adecuada gestión de la línea en su conjunto, en el territorio guipuzcoano situado al norte de los puestos ubicados en la parte alavesa de la línea se aplicará la Orden Foral de 16 de julio de 2013, por la que se regula la caza de aves migratorias en pasos tradicionales en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, por lo que, durante el período de sorteo, no se podrá cazar y estarán prohibidas las escopetas volantes en 500 metros por delante de la línea.

En el resto de líneas no declaradas de pase tradicional y no gestionadas por la Federación Guipuzcoana de Caza se aplicará la normativa general vigente en materia de caza.

e) Aves acuáticas. Salvo para el Ánade azulón (*Anas platyrhynchos*), la caza de aves acuáticas solo se autoriza desde el 15 de septiembre hasta el 15 de noviembre.

f) Zorro (*Vulpes vulpes*). Desde el 12 de octubre hasta el 29 de febrero, ambos inclusive.

La caza del zorro en los terrenos cinegéticos de régimen común se autorizará únicamente en batida los sábados, domingos y festivos y deberá contar con el permiso del Servicio de Fauna y Flora Silvestre. Los cazadores y cazadoras autorizados para la caza de esta especie deberán cumplir las condiciones establecidas en el permiso. En las batidas deberán participar al menos 5 cazadores o cazadoras, no pudiéndose celebrar la batida con un número inferior.

Las solicitudes para la realización de dichas cacerías, dirigidas al Servicio de Fauna y Flora Silvestre, se presentarán en la Federación Guipuzcoana de Caza antes del día 15 de septiembre de 2019. En dicha solicitud figurará la



horietako bakoitzaren izen-abizena, NA eta sexua eta arduradunaren helbidea eta telefono zenbakia. Era berean, ehizaldia egin nahi den lur azalera eta herria zehaztu beharko dira.

Erregimen berezipeko ehiza lurretan azeriaren ehiza dagokion plan zinegetikoan adierazitakoari jarraikiz arautuko da.

3. Ehiza larria.

a) Baimendutako espezieak. Basurdea (*Sus scrofa*) eta Orkatza (*Capreolus capreolus*).

b) Ehizaldia. 2019ko irailaren 1etik 2020ko martxoaren 29a artekoa izango da, biak barne, eta ehiza egunak ostegun, larunbat, igande eta jaiegunak izango dira.

c) Basurdearen eta orkatzen ehiza deklaraturako Kontrolaturako Ehiza lekuetan egingo da, dagokion plan zinegetikoan adierazitakoaren arabera.

d) Basurde uxaldi baimenduetan uxatzaileek eta txakurzaleek hiru eskopeta eraman ahal izango dituzte, gehienez, basurdea akabatzeko edo txakurrei erasoak saihesteko.

4. Baimen berezia behar duten ehiza motak. Legeztatutako ehiza-hegaztiak edo arku erabiliz ehizan aritu nahi dutenek Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuaren baimen berezia eskuratu beharko dute. Baimen hori Basa Animalien eta Landareen Zerbitzuari eskatuko zaio Gipuzkoako Ehiza Federazioaren bidez.

3. artikulua. Faunaren babesa, oro har.

1. Debekuak.

2/2011 Legeak, Ehizarenak, ezartzen dituen debekuez gain, eta bereziki, ehizaren jarduna arautzen duen bere V. tituluaren ezarritakoez gain, honako baliabide eta arte hauekin ehizatzea galarazten da:

1. Debekatua dago ehizatzea eraztun-perkusiozko armekin eta gauez tiro egitea ahalmentzen duten bisoreekin.

2. Debekatuta dago ehiza debekua duten terrenoetan eta, oro har, debekualdian edozein ehiza terrenotan. su armekin ibiltzea zorrotik

composición de la cuadrilla con el nombre, apellidos, D.N.I. y sexo de cada miembro y con el domicilio y número de teléfono de su responsable. Asimismo deberá indicar la mancha y municipio donde se pretenden realizar las batidas.

En los terrenos cinegéticos sometidos a régimen especial, la caza del zorro se registrará con arreglo a lo indicado en el plan cinegético correspondiente.

3. Caza mayor.

a) Especies autorizadas. Jabalí (*Sus scrofa*) y Corzo (*Capreolus capreolus*).

b) Período hábil. El comprendido entre el 1 de septiembre de 2019 y el 29 de marzo de 2020, ambos inclusive, siendo los días hábiles los jueves, sábados, domingos y festivos.

c) La caza del jabalí y del corzo se practicará en las Zonas de Caza Controlada declaradas, con arreglo a lo indicado en el plan cinegético correspondiente.

d) En las batidas de jabalí autorizadas, quienes se ocupen de batir la zona de caza y de conducir los perros podrán llevar hasta tres escopetas, con el fin de rematar un jabalí o evitar ataques a los perros.

4. Modalidades de caza que requieren permisos especiales. Quienes deseen practicar la caza con aves de cetrería legalizadas o con arco, deberán obtener previamente el permiso especial del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa, que se solicitará al Servicio de Fauna y Flora Silvestre a través de la Federación Guipuzcoana de Caza.

Artículo 3. Protección a la fauna en general.

1. Prohibiciones.

Además de las prohibiciones establecidas en la Ley 2/2011, de Caza, y en particular, en su Título V, en el que se regula el ejercicio de la caza, se prohíbe cazar con los siguientes medios, métodos y artes:

1. Se prohíbe cazar con armas de percusión anular y con visores que permitan el disparo nocturno.

2. Queda prohibido en los terrenos en los que la caza no está permitida, así como con carácter general durante la época de veda en cualquier



kanpo edo muntatuta, baita aire konprimituz nahiz bestelako gasez eragindakoeekin ere, dagokion baimenik gabe.

2. Espezie ehizagaien komertzializazioa. 2/2011 Legeak, Ehizarenak, bere 45 artikuluan ezarritakoa betez, eta irailaren 15eko 1118/1989 Errege Dekretuak xedatutakoarekin eta bere Eranskinen jasotako espezie ehizagarrien zerrendarekin bat, honako hauek dira komertzializa daitezkeen espezie ehizagaiak:

Ugaztunak:

Erbia (*Lepus sp.*)
Untxia (*Oryctolagus cuniculus*)
Azeria (*Vulpes vulpes*)
Basurdea (*Sus scrofa*)

Hegaztiak:

Basahatea (*Anas platyrhynchos*)
Eper gorria (*Alectoris rufa*)
Faisai arrunta (*Phasianus colchicus*)
Pagausoa (*Columba palumbus*)
Txoloma (*Columba oenas*) (*)
Galeper arrunta (*Coturnix coturnix*)

(*) Industria ustiapenetako aleak soilik.

3. Ehiza Segurtasun Aldeetan. Segurtasun Alde espresuki deklaratuak izan diren tokietan berariazko arauen arabera egingo da ehiza.

4. Ehiza Naturagune Babestuetan. Gipuzkoan deklaratuak Parke Naturaletan (Aralar, Aiako Harria, Pagoeta eta Aratz-Aizkorri), Babestutako Biotopoetan (Leitzarar, Inurritza eta Zumaia-Deba itsasertzeko tartea) eta 2000 eta Natura Sarean dauden guneeetan gunen horien araudi bereziaren arabera ehizatuko da.

4. artikulua. Nekazaritza, abeltzaintza, mendi eta ehizarako kaltegarriak diren espezieak kontrolatzeko neurriak.

Espezie horiek egindako kalteak agertzen diren lurraldeetan, espezie horien kontrolerako prozedurarik egokiena baimendu ahal izango du Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreka Departamentuak, indarrean dagoen legeriaren arabera.

tipo de terreno cinegético, transitar con armas de fuego desenfundadas y montadas, así como las accionadas por aire comprimido u otros gases, si no se dispone de la correspondiente autorización.

2. Comercialización de especies cinegéticas. En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 45 de la Ley 2/2011, de Caza, y conforme a lo dispuesto el Real Decreto 1118/1989 de 15 de septiembre, en cuyo Anexo se relacionan las siguientes especies objeto de caza que se declaran comercializables:

Mamíferos:

Liebre (*Lepus sp.*)
Conejo (*Oryctolagus cuniculus*)
Zorro (*Vulpes vulpes*)
Jabalí (*Sus scrofa*)

Aves:

Ánade real (*Anas platyrhynchos*)
Perdiz roja (*Alectoris rufa*)
Faisán (*Phasianus colchicus*)
Paloma torcaz (*Columba palumbus*)
Paloma zurita (*Columba oenas*) (*)
Codorniz común (*Coturnix coturnix*)

(*) Sólo los ejemplares procedentes de explotaciones industriales.

3. Caza en Zonas de Seguridad. En aquellos lugares expresamente declarados como Zonas de Seguridad, la caza se realizará con arreglo a la normativa específica reguladora de las mismas.

4. Caza en los Espacios Naturales Protegidos. La caza en los Parques Naturales declarados en Gipuzkoa (Aralar, Aiako Harria, Pagoeta y Aratz-Aitzgorri), en los Biotopos Protegidos (Leitzarar, Inurritza y el tramo litoral Deba-Zumaia) y en los espacios incluidos en la Red Natura 2000, se desarrollará de acuerdo con lo establecido en su normativa específica.

Artículo 4. Medidas de control de especies perjudiciales para la agricultura, ganadería, montes y caza.

En aquellos terrenos donde circunstancialmente aparecieran daños causados por estas especies, el Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial podrá autorizar el procedimiento más adecuado para su control, de acuerdo con la normativa vigente.



5. artikulua. Neurri bereziak.

Ehiza moten iraupenerako erabat kaltegarriak diren klimazko, biologiazko edo beste edozeinezko zirkunstantziak direla eta, Gipuzkoako edo eskualde bateko ehiza ondasunari egin dakizkiokkeen kalteei aurrea hartzeko, Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta Lurralde Oreekako Departamentuak bereganatzen du mota horietako batzuen edo guztien ehiza aldiak aldatzeko ahalmena.

6. artikulua. Arau-haustekak

Debekualdien Foru Agindu honen arauak hausteari, dagokion zigorra jarriko zaio, lege hauei jarraikiz: Natur Ondareari eta Bioaniztasunari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legea; 2/2011ko Legea, martxoaren 17koa, Ehizarena; Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina, 2014ko apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutakoa, eta aplikagarri izan daitekeen beste edozein arau.

Xedapen indargabetzailea.

Foru agindu honetan ezarritakoari aurka egiten dioten garrantzia bereko edo gutxiagoko xedapen guztiak baliogabeturik geratzen dira.

Azken xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Artículo 5. Medidas circunstanciales.

A fin de prevenir los daños que pudieran ocasionarse a la riqueza cinegética del Territorio Histórico de Gipuzkoa o de una comarca, por circunstancias climáticas, biológicas o cualesquiera otras extremadamente desfavorables para la conservación de las especies, el Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial se reserva la facultad de modificar los períodos hábiles de algunas de las especies, o de todas ellas.

Artículo 6. Infracciones.

Las infracciones a la presente Orden Foral de Vedas serán sancionadas según proceda, conforme a la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, a la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza, al texto refundido de la Ley de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/2014, de 15 de abril, y conforme a cualquier otra norma que resulte aplicable.

Disposición derogatoria.

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la presente Orden Foral.

Disposición final.

La presente Orden Foral entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Donostia, 2019ko ekainaren 17a
San Sebastián, 17 de junio de 2019

**BASANIMALIEN ETA LANDAREEN ZERBITZUBURUA
EL JEFE DEL SERVICIO DE FAUNA Y FLORA SILVESTRE**

Izptua/Fdo.- Iñigo Mendiola Gómez

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Landa Ingurune eta
Lurralde Oreka Departamentua



**Diputación Foral
de Gipuzkoa**
Departamento de Promoción
Económica, Medio Rural
y Equilibrio Territorial